

**KOHESIO SOZIALA ETA OINARRIZKO ESKUBIDEEN AGIRIA  
EUROPAKO BATASUNEAN**

Europako Ekonomia Elkartea izenarekin sortu zena 1957. urtean, Europako Batasuna bihurtu zen 1992. urtean. Sei estaturekin osaturiko elkarteak 15 ditu egun, urte honetan bertan 25 izango ditu – orain arteko hamabost estatuei Txekiar Errepublika, Eslovakia, Eslovenia, Estonia, Hungaria, Letonia, Lituania, Malta, Polonia eta Zipre elkartuko zaizkie-, eta, itxura guztien arabera, 2007. urtean 27 estatuk osatutako elkartea izango dugu – burreko hogeita bostei Errumania eta Bulgaria gehituko zaizkie-.

Osaketa eta izena aldatzeaz gain, izaera ere aldatu du Elkarreak. Hedakuntza bakoitzean, kultura eta hizkuntza berriak ere onartu ditu Batasunak. Elkarrea kultura latinoak eta germaniarrak sortu zuten 1957. urtean (Alemaniako Errepublika Federala, Belgika, Frantzia, Italia, Luxemburg eta Herbehereak). Ondoren, kultura anglosaxoia sartu zen Batasunean (Erresuma Batua, 1973. urtean), eta aurki kultura eslabiarrak sartuko da (2004). Begiratzen den ikuspuntutik begiratzen dela, aniztasun eta aberastasun linguistiko eta kultural izugarria duen eremu geopolitikoak sortu da (Prodi, 2000). Honi Afrikatik, Asiatik edo munduko beste zonalde batzuetatik etorritakoen kulturak eta hizkuntzak gehitzen badizkiogu, uka ezina da izaera anitza duen eremua sortzen ari dela; kolore, mundu ikuskera eta izaera askotako gizartea.

aukerez eta etekinez baliatzeko. Zentzu honetan, Batasunak duen kontraesanik azpimarragarriena zera da: kontsumo gaitasun izugarria duten pertsonen alboan, langabezian, pobrezia egoera ukazezinean edota kontsumoaren gurpil zoroan murgiltzeko arazoak dituzten pertsona ugari daudela. Beste hitz batzuekin esanda, aberastasun izugarria sortzen duen merkatu honetan, arazoak daude hainbestetan hitz egiten den kohesio soziala ziurtatzeko.

Zer egin Batasunean barrena etxerik gabe, lanik gabe eta txirotasunean bizi direnekin? Nola konpondu gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak? Zer egin naturak jasaten dituen kalte guztien aurrean? Nola lortu arlo ekonomikoaren, politikoaren eta sozialaren garapen orekatua? Nola ziurtatu kohesio soziala?

Europako Kontseiluak askotan esan du langabeziari, txirotasunari, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunei, gizarte bazterketari, etorkinen egoera kaxkarrari eta kutsadurari aurre egiteko bideak jarri behar direla; baina, egia esan, goi-bileretan adostasun gutxi ikusten da gai hauen inguruan.

Europako Gizarte Ereduari buruz behin eta berriz hitz egiten bada ere, estatuak ez dira ados jartzen eredu horren berezitasunen inguruan; ezta eredu hori lortzeko hartu beharreko neurriei buruz ere. Bitartean, handitzen doa arrazakeria zein langabezian dauden Batasuneko biztanleen kopurua, baita baldintza txarretan lan egiten dutenen, etxerik ez dutenen edota arazo ekonomiko larriak dituztenen kopurua ere. Are gehiago, 2004. urtean Batasunean sartuko diren hamar estatuek erreforma ekonomiko, juridiko eta politiko handiak egin behar izan dituzte Batasunean sartzeko, eta, askoren ustez, erreforma hauek langabezia, txirotasuna eta bazterkeria handitu dituzte. Inflazio, aurrekontu, zor publiko, moneten truke balio eta interes tasen inguruan Batasunak ezarri dituen irizpideak murrizketak izugarriak ekarri dizkiete herritarrei, bereziki txiroenei.

Era berean, hedakuntza bakoitzean, Batasuneko biztanleen kopurua ere handitu egin da, eta, horrekin, baita elkartearen ekoizteko eta kontsumitzeko gaitasuna ere. Biztanleria herrien gorputza, eta gizarte baten etorkizuna ziurtatzeko ezinbestekoa faktorea dela onartzen badugu, uka ezina da 450 milioi biztanlerekin Batasunak bizi-indar izugarria duela.

Hedakuntzekin Batasuneko gaitasun ekonomia ere indartu egin da (Gallastegi, 1998). Estatu kopurua handitzen joan den maila berean, Barne Produktu Gordina ere handitzen joan da. Batasunaren ondorioz sortu diren sinergia ekonomikoek eragin positiboa izan dute Estatu kide guztien ekonomietan. Salgaien, pertsonen, zerbitzuen eta kapitalen zirkulazioa inolako arazorik gabe egin ahal izateak etekin ekonomikoak handitu ditu. Are gehiago, mugarik gabeko eremu geografiko honek posible egin du euroa sortzea, eta, horrekin batera, handitu egin da Europako Batasunaren komunitatez kanpoko merkataritzaren garrantzia. Urte honetan, 77 milioi herritar gehiago sartzen direnean Batasunean, Europaren historian inoiz egon den esparru ekonomiko indartsuena sortuko da, eta pentsatzekoa da aldagai makroekonomiko guztiak aldaketa positiboa izango dituztela (Romano Prodi, 2000).

Historia azkar idazten ari da Europako Batasuna. Kontraesanak kontraesan, etengabe aurrera doan gizarte dinamikoa osatzen dute 25 estatuak. Monetek, Schumanek, Adenauerrek eta abarrek inoiz pentsatuko ez luketen aldaketa kuantitatiboak eta kualitatiboak izan ditu denbora gutxian, eta, gaur egun, elkarte ekonomiko bat baino zerbait gehiago da; egunetik egunera aldatzen ari den batasun ekonomiko, politiko eta soziala da.

### **Arazo sozialak Batasunean**

Hedakuntzek ondorio positibo asko ekarri badituzte ere, uka ezina da batasuneko biztanle askok arazo larriak dituztela kontsumitzaile oso gisa aritzeko, eta merkatu erraldoi honen

Dena ez da beltz kolorekoa, hala ere. Etorkizuna baikorki ikusteko arrazoiak ere baditugu. Izan ere, kohesio sozialak duen garrantziari buruzko gero eta kontzientzia handiagoa dago gure artean; alegia, zabaltzen doa arazo sozialak konpontzearen aldeko aldarrikapena, baita Europako Batasuneko Gizarte Ereduaren izaerari buruzko kezka ere. Gizarte mugimenduen zein era askotako elkartasun taldeen azken urteetako aldarrikapenek eragina izan dute, inolako zalantzarik gabe. Feirako goi bileran (2000), Lisboako Enpleguaren gailurrean (2000) Miarritzeko gailurrean (2000), Nizan (2000), Kohesioari buruzko foroan (2001), Laekengo gailurrean (2001),artzelonako goi bileran (2002) edo Sevillako goi bileran (2002) gizarte mugimenduek egin dituzten protestaldi eta aldarrikapenek eragina izan dute Europako kontzientzian, eta, bide batez, Batasunaren politika sozialari buruzko kezka azaleratzerakoan.

1957. urtean sortu zenetik, Europako Batasunak askotan aipatu izan du kohesio soziala ziurtatzearen eta arazo sozialak konpontzearen garrantzia. Indar gehiago edo gutxiagorekin, Batasunaren bultzatzaileek hasieratik izan zuten integrazio sozialari buruzko ardura. Monetek, Schumanek, Adenauerrek eta abarrek, hasieratik adierazi zuten arazo sozialak konpontzeko mekanismoak sortu behar zirela. Zentzu honetan, ezin da aiantzi Erromako Itunean (1957) arazo sozialei aurre egiteko Kontseilu ekonomiko eta Soziala sortu zelazea pentsatu zela.

Alabaina, 2000. urtean ospatu zen Nizako goi bilerara arte, Batasunak ez du Giza Eskubideei buruzko Agirik sortu. Are gehiago, 2000. urtera arte arazo sozialek ez dute izan beste arazo batzuk, bereziki arazo ekonomikoek, izan duten garrantzirik, ezta bultzadarik ere (Moreno, XVII)".

### **Oinarrizko Eskubideen Agiria**

Urteetan zehar gai sozialei buruzko politika ahula ikusi ostean, gauzak aldatzen hasi ziren Nizan, 2000ko azaroan egin zen goi bileran. Izan ere, Nizan Oinarrizko Eskubideen Agiria

onartu zen. Agiri horrek 54 eskubide zibil, ekonomiko, sozial eta politiko aitortzen die Europako herritarrei. Pauso hau txalotu beharrekoa bada ere, ezin da ahantzi adierazpen politiko hutsa dela oraingoz; hau da, oinarrizko printzipioen deklarazio hutsa da, eta estatuak ez daude Agiria betetzera behartuak.

Agiriak Mendebaldeko oinarrizko baloreak biltzen ditu, adierazpen eta pentsamendu askatasuna eta legearen aurreko berdintasuna horien artean. Greba eskubidea eta bidezko lan baldintzen bermatzea ere jasotzen dira testuan. Ugalketa xede duen klonazioa debekatzen du.

Agiriak 54 artikulutan eta sei kapitulutan biltzen ditu eskubide guztiak. Kapitulu horien izenburuak duintasuna, askatasunak, berdintasuna, elkartasuna, herritarren eskubideak eta justizia dira. Artikulu esanguratsuenak honako hauek dira:

*2. artikulua. Pertsona guztiek dute bizitzarako eskubidea. Ez da inor heriotza zigorrera kondenatuko.*

*14. artikulua. Pertsona guztiek dute hezkuntza jasotzeko eskubidea.*

*23. artikulua. Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna arlo guztietan bermatuko da, baita lan arloan ere. Kontratatua izateko aukera eta lan baldintza berdinak izatea eta soldata bera jasotzea bermatuko dira.*

*28. artikulua. Langileek eta enpresariak negoziatzeko eta akordio kolektiboak lortzeko eskubidea dute. Interes desberdinen arteko gatazka gertatuz gero, lanuztea bezalako ekintza kolektiboak egiteko eskubidea bermatuko da.*

*32. artikulua. Debekatua dago haurrak lanerako kontratatzea.*

*35. artikulua. Pertsona guztiek dute osasun artatzea izateko eta tratamendu medikua jasotzeko eskubidea.*

*37. artikulua. Batasunaren politikak ingurugiroaren babesa eta ingurune-baldintzen hobekuntza bilduko ditu.*

Oinarrizko Eskubideen Agiriaren baitan, Gizarte Agiria ere onartu zen. Gizarte Agiri honek sei puntu garrantzitsu ditu:

- 1 *Ahalik eta herritar gehienei lan merkatuan sartzeko aukera erraztea.*
- 2 *Langileei segurtasun neurri gehiago eskaintzea.*
- 3 *Txirotasunaren eta diskriminazioaren aurka egiteko konpromisoa hartzea.*
- 4 *Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatzea.*
- 5 *Babes sozialaren sistemak berritzea.*
- 6 *Europako Batasunaren bedapenari begira, arlo soziala ere kontuan izatea.*

### **Agiriaren inguruko iritzi kontrajarriak**

Nizan Europako Eredu Sozial delakoa sortzeko lehen pausoak eman baziren ere, iritzi kontrajarriak agertu ziren Agiriaren inguruan. Zenbait kidek —Erresuma Batuak, batez ere— ez dute onartzen estatuengan eragina izatea; Frantziak, Holandak eta Alemaniak, aldiz, indar legala eman nahi diote Agiriari.

Batasuneko gizarte mugimenduen, sindikatuen eta gai sozialaren inguruan lan egiten duten taldeen artean ere ez dago adostasunik. Batzuentzat, onartutako Agiria gauza gehiago lortzeko lehen pausoa da. Beste batzuentzat, aldiz, inondik inora onartu ezin den Agiria da.

Agiriaren aurka agertu direnentzat, Nizan onartutakoak kapital eta jabeen interesak babesten ditu. Oinarrizko Eskubideen Agiria beherantz egindako harmonizazioa da: orain arteko maila gutxitzen du, sindikatuen eskubideen eremuari dagokionez, eta, batez ere, prestazio sozialaren arloan dauden eskubideei dagokionez. Gainera, eskubide sozialak oso era nahasian aipatzen ditu. Izan ere, Europa osorako greba, konbenio eta norberaren beharraren araberako gutxieneko soldataz ez du ezer ere esa-

ten. Agiriaren hutsak ageri-agerikoak dira, batez ere eskubide sozialei dagokien arloan: langabetuak babesteko araudian, esaterako. Jabegoa, kapital eta merkatal produktuen eta zerbitzuen trafikoa, aldiz, bermatzen ditu Europa osoan. Esanak esan, ezkertiarren eta globalizazioaren aurkakoen arabera agiriak ez ditu bizi baldintza hobekak ekarriko, eta eskubide jakin batzuk aitortzen ditu bakarrik (Cereceda, 2001).

Euskaldunon Egunkariak *Die Tageszeitung-Berlin* egunkarian “Harmonizazioa beherantz” izenburupean Angela Kleinek idatzitako artikulua oso ondo adierazten zuen agiriaren aurka zeuden ikuspuntua: “Oinarrizko Eskubideen Agiria ezin da EBren barruan onartu. Agiri horrek eskubide sozialei egiten die kalte, alde bakar batetik baizik ez duelako benetako eragina, kapital eta jabeen interesak babesten dituelako.

Mugimendu sozialen ikuspuntutik Oinarrizko Eskubideen Agiria beherantz egindako harmonizazioa da. Agiriak orain arteko maila beheitzen du, sindikatuen eskubideen eremuari eta, batez ere, prestazio sozialen arloan dauden eskubideei dagokienez.

Ez da hain txarra, pentsa liteke: EBren Oinarrizko Eskubideen Agiriak soil-soilik jatorria Bruselan duten legeei eragingo die, ezin ditu araudi nazionalak gainditu. Baina Europako Batasuna batasun politikoa bihurtuko den heinean —eta gainera, Konstituzio komunarekin— Bruselaren kompetentzien esparrua handitu egingo da. Jadanik egun Bundestagen jorratzen diren legeen %60k dute ‘jatorria’ Bruselan.

Oinarrizko Eskubideen Agiriak ez lituzke auzitan jarri behar berak baino maila sozial altuagoa garatu duten lorpen nazionalak. Agiriak eskubide sozialak oso modu lainotsuan aipatzen ditu. Beste era batera azalduta, Europa osorako greba, konbenio eta norberaren behararen arabera gutxieneko soldataz ez du ezer ere esaten Oinarrizko Eskubideen Agiriak. Jabegoa, kapital eta merkatal produktu eta zerbitzuen trafikoa, aldiz, bermatzen ditu Europa osoan”.

Agiriaren alde dauden taldeek diote gutxieneko kontzentzua dela, eta soil-soilik agiria existitzen hasten denean izango dela hura erreformen bidez aldatzeko aukera. Zerbait lortzeko zerbaitekin hasi beharra dago, eta Nizan onartutako Agiria aurrerapausoak emateko eta Europako Gizarte Eredua lortzeko abiapuntu egokia izan daiteke. Angela Kleinen artikulua alboan “Sinatu!” Izenburua zuen Ute Hausmannen artikulua hau argitaratzen zuen *Egunkariak* kontraste gisa: “EB Oinarrizko Eskubideen Agiriari lotu behar zaio. Zoritxarrez gutxieneko kontzentzua da hori, baina soil-soilik agiria existitzen hasten denean izango da hura erreformen bidez aldatzeko aukera.

Agiriaren hutsak ageri-agerikoak dira, batez ere eskubide sozialei dagokien arloan —langabetuak babesteko araudian, esaterako—. Baina agiria orain onartzea oztopatzea alferrekoa izango litzateke, baita arriskutsua ere: horrek kili-kolo jarriko luke estatu desberdinetako oinarrizko tradizio sozialen artean ozta-ozta lortutako konpromisoa.

Alternatiba beraz, bakarra dago: agiri hau edo bat ere ez. Eta politikoki ez litzateke zuzena izango Oinarrizko Eskubideen Agiriari uko egitea”.

Eztabaidak eztabaida, nire ustez, Nizan onartutako Agiria lehen pausoa da Europako herritarrei eskubide zibil, ekonomiko, sozial eta politikoak aitortzeko. Agiri hau aukera egokia izan daiteke arazo sozialei irtenbideak aurkitzen hasteko, gizarte ongizatea handitzeko, garapen ekonomiko jasagarria ziurtatzeko, eta demokraziako funts eta balioetan oinarritutako bizimodua hedatzeko (Rhodes, 1997). Hitz gutxitan esateko, aurrerapausoa da hainbeste aldarrikatzen den Europako Gizarte Eredua lortzeko bidean. Aukera hau aprobetxatzen ez bada, alegia, Agiriari behar bezalako etekina ateratzen ez bazazio defizit demokratikoa handitu egingo da, eta hiritarrek ez dute Europan sinistuko, ezta europar sentimendua garatu ere.



***Aipatutako bibliografia***

- Cereceda, J. (2001): “Ez dago Europa sozialik”. *Egunkaria*.
- Gallastegi, M.C. (1998): “Aldaketa historikoa”, *Jakin*, 108. zenbakia, Donostia.
- Hausmannen, U. (2000): “Sinatu”, *Egunkaria*.
- Klein, A. (2000): “Harmonizazioa beherantz”, *Egunkaria*.
- Moreno, L. (1997): “Prefacio”, Moreno, L. (biltzailea): *Unión Europea y Estado de Bienestar*. CSIC, Madril.
- Prodi, R. (2000): *Una idea de Europa*. Alianza, Madril.
- Rhodes, M. (1997): “El futuro de la dimensión social europea”, Moreno, L. (biltzailea): *Unión Europea y Estado de Bienestar*. CSIC, Madril.

*Patxi Juaristi*